

## Zibergauzak

**K**onturatuta egongo zarete aspaldian poli-ziak inor atxilotzen duenean gero eta gutxiago direla arma konfiskatuak. Garai batean, indar polizialek eraginkortasunez egindako lanaren erakusgarri eta atxilotutakoaren arrisku mailaren ziurtagiritzat azaltzen ziren erakusmahai inprobisatueta lerro-lerro paratutako munizio, fusil eta enparauak. Aspaldion, ordea, apenas. Atxilotuei harrapatutako materiala, informatikoa da nagusiki orain, kutsu ia komikoa izateraino, zenbaitetan. Hona, azken atxilotetako bat narratzen zuen egunkari batetik jasotako hitzak: “Les fueron confiscados varios lápices informáticos...”; “se sabe que operan en cibercafés”.

Informazioa boterea deneko erran zaharra berrituko didazue. Arrazoia emango dizuet. Baina informazioa bakarrik ez, fikzioa ere bai. George Steinerrek, *La idea de Europa* liburuan, Europa definitu eta AEBekin kontrajartzeko orduan, kafetegietan tertulian aritzeko zaletasuna jotzen zuen kontinente zaharreko ezaugarrietako bat –hiriek oinez ibiltzeko ematen dituzten erraztasunak eta kaleei pentsalari handien izenak jartzeko ohitura ziren beste bi–, baina nago, orain aldatu egin dela franko kafea hartzeko

Steinerrek aipatu molde hura: “Se sabe que operan en cibercafés”, Rubalcaba barne ministroaren hitzak biziki esanguratsuak dira, eta ziberkafe horiek dezente erabiltzen dituenetarikoa naizenez, halako ezinegona eragiten dit zeregin susmagarrien zerrendaren zabaltze eta mutazio honek. Nire golkorako



DANI BLANCO

“a veces, oigo voces” fantasmalaren pareko begitantzen zait “se sabe que operan en cibercafés” hori, mamuen mundu baterako ongietorria edo deiarar esoteriko xuxurlatua.

Norbait atzetik dabilkigunekoa –sasian dagoenaren amesgaiztoa–, fantasia bat izan ohi da egunotan idazlearentzat: irakurleen bila eta irrikaz gabiltzanez sarri, espia suerte bat garenez geroni, zelatatuak –irakurriak– izatea gustatuko litzaiguke, halaber. *La vida de los otros* filmean gertatzen zen legez, gure mezuak eta gure idatziak zelatatu ahala norbaitek guri irakurri eta entzundakoekin txostenak egiten dituela fantaseatzea gustatzen zaigu. Dibertitu egiten da idazlea, irudikatuz dagoeneko itzulia duela bere obra gaztelerara, zerbitzu sekretuetakoak eginga diotela lan hori, eta bere poemak klabean idatzitako mezu kruzialak direlakoan, haiek deszifratu nahian ibiliko direla buru-belarri CNlko enkriptazio sailekoak.

Bai, bai... Ez gara atzo jaio, ohartu gara zibermunduan eta segapotoetan dagoela etorkizuna –segapotoen esku beti egon da, egia esan–. *New York Times*ek ere argitaratua du Obamaren haserrearen berri, Blackberrya kendu diotela eta: inperio serio bateko presidenteak ezin du esamesak eta e-mailak bidaltzen ibili. Hala ere, ordenagailu eramangarri bat bulegoan izango duen AEBetako lehen presidentea izatea lortu ei du –hago lasai, Barack beti geratuko zaizkik ziberkafeak...–.

Interneten garapenari zor diogu baztertua ziruditen ezizen, heteronimo eta izaera destolestuen gorakada. *Diario intimo*ak blogetan izan duen garapena ere ez da nolana hikoia izan, pudorearen desagerpena ere nolana hikoia izan ez den bezala. Badut lagun bat edo beste blog bihurtu eta fisikoki desagertu egin zaidana: “Ni zertan naizen jakinez gero, irakurri nire bloga”. Rimbauden “Ni bestea naiz” zaharkitua geratu da: ni hipertestua naiz, esango genuke orain.

Irakurle maite, zu ere ez zaitut jada paperjale ikusten. Badakit pantailan irakurtzen nauzula: “Se sabe que operan en cibercafés...”. Biba ba, ispilu itxuragabetzaileen galeriak. ■

«

Rubalcaba barne ministroaren hitzak biziki esanguratsuak dira, eta ziberkafe horiek dezente erabiltzen dituenetarikoa naizenez, halako ezinegona eragiten dit zeregin susmagarrien zerrendaren zabaltze eta mutazio honek

»



irudia:

Antton Olariaga